BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

1411

EBAZPENA, 2014ko martxoaren 3koa, Araubide Juridikoaren sailburuordearena, zeinen bidez argitara ematen baita Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetza Batzordearen akordioa, Itsasbazterraren babes eta erabilera jasangarriari buruzko maiatzaren 29ko 2/2013 Legeari buruzkoa –Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legea aldatzekoa–.

Konstituzio Auzitegiaren urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 33.2 artikuluan aurreikusten den erabakia hartuta eta artikulu horren c) idatzi-zatian ezarritakoarekin bat, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetza Batzordearen arteko akordioa, Itsasbazterraren babes eta erabilera jasangarriari buruzko maiatzaren 29ko 2/2013 Legeari buruzkoa –Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legea aldatzekoa–. Ebazpen honi eransten zaio akordio hori.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko martxoaren 3a.

Araubide Juridikoaren sailburuordea,
SABINO TORRE DÍEZ.

ERANSKINA

ESTATUKO ADMINISTRAZIOAK ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAK OSATUTAKO ALDEBIKO LANKIDETZA BATZORDEA

AKORDIOA, ESTATUKO ADMINISTRAZIOAK ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAK OSATUTAKO ALDEBIKO LANKIDETZA BATZORDEARENA, ITSASBAZTERRAREN BABES ETA ERABILERA JASANGARRIARI BURUZKO MAIATZAREN 29KO 2/2013 LEGEARI DAGOKIONEAN –KOSTALDEEI BURUZKO UZTAILAREN 28KO 22/1988 LEGEA ALDATZEKOA–.

Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetza Batzordeak akordio hau egin du:

1.– Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetza Batzordearen 2013ko uztailaren 25eko Akordioan xedatutakoa betez, lan-talde bat osatu zen Itsasbazterraren babes eta erabilera jasangarriari buruzko maiatzaren 29ko 2/2013 Legeari –Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legea aldatzekoa– dagokionean eskumenei buruz sortutako desadostasunen inguruko irtenbideak ikertu eta proposatzeko. Bada, lan-talde horrek egindako aurretiko negoziazioen arabera, bi alderdiek uste dute desadostasunok konpondu egin direla, gogoeta eta konpromiso hauek direla medio:

a) 2/2013 Legearen 1. artikuluaren 38. atalaren interpretazio zuzena eginez, zeinen bidez aldatzen baita Kostaldeei buruzko 22/1988 Legearen 119. artikulua, bada, Toki-araubidearen oinarriei buruzko apirilaren 7/1985 Legearen 67. artikulua aplikatuko da 119. artikulu horretan aipatutako egoeretan, eta, betiere, 67. artikuluan aurreikusitako eskakizunak betetzen badira kasu bakoitzean aintzat hartutako egitatezko baldintzan.

b) 2/2013 Legearen 1. artikuluaren 39. atalaren interpretazio zuzena eginez, zeinen bidez aldatzen baitira Kostaldeei buruzko 22/1988 Legearen lehenengo xedapen iragankorra, 2. eta 3. atalak eta 5. atal berria, bada, xedapen iragankor horren 2. atalean xedatutakoa bakarrik ulertuko da Estatuaren eskumenaren emakida-prozedurari dagokionean, hargatik eragotzi gabe eskatu ahal izatea autonomiaren eskumeneko ingurumen baimen bateratua izatea edo kasu bakoitzean aplikatzekoak diren ingurumeneko gainerako baimen edo eskakizunak betetzea.

c) 2/2013 Legearen 1. artikuluaren 40. atalaren interpretazio zuzena eginez, zeinen bidez aldatzen baitira Kostaldeei buruzko22/1988 Legearen laugarren xedapen iragankorraren 2. atalaren a), b) eta c) idatzi-zatiak eta 3. atal berri bat gehitzen baitu, bada, laugarren xedapen iragankor horretan xedatutakoa ulertuko da autonomia-araudietan, eta, batez ere, ingurumena babesteko arau gehigarrietan ezarritako eskakizunak eragotzi gabe, kasu bakoitzaren arabera aplikatzekoak direnak.

d) 2/2013 Legearen 2. artikuluaren interpretazio zuzena eginez, zeinen bidez aurreikusten baita posible dela aurreko araudiaren babesean esleitutako emakidak luzatzea, bada, 2. artikuluan xedatutakoa bakarrik ulertuko da Estatuaren eskumenaren emakida luzatzeko prozedurari dagokionean, hargatik eragotzi gabe autonomiaren eskumeneko ingurumen baimen bateratua izatea eskatzea edo kasu bakoitzean aplikatzekoak diren ingurumeneko gainerako baimenak edo eskakizunak betetzea.

2.– Akordio honen berri ematea Konstituzio Epaitegiari, Konstituzio Epaitegiaren 2/1979 Lege Organikoaren 33.2 artikuluan xedatutako ondorioetarako, eta baita akordio hau Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea ere.

Madril, 2014ko otsailaren 24a.

Ogasun eta Herri Administrazioko ministroa,
CRISTOBAL MONTORO ROMERO.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.